



## Iritsi dira kaldereroak, Inauterien iragarle

**TOLOSALDEA** ▶ Anoetara, Irurara, Ibarrara eta Zizurkilera atzo iritsi ziren kaldereroak, giro ederrean

**GAUR** ▶ Tolosan egun osoko festa izango da; kaldereroen konpartsa 19:30ean aterako da Triangulotik ▶ 6



Loatzo musika eskolarekin batera egin zuten kalejira Ibarra, herriko plazatik abiatuta. MADDI SORRA

**TOLOSA** ▶

**Elkarlana «gustura», AHTren ekitaldiekin**

Aurrerantzean bilera informatibo gehiago egingo dituzte ▶ 5

**TOLOSA** ▶

**ISO kalitatea lortu du Asuncion Klinikak**

Asistentziako informazio sistematik ▶ 3

**TOLOSA** ▶

**Erdira jeitsi da trafiko istripuen kopurua**

Mugikortasun Planaren balorazioa egin dute udal ordezkariak ▶ 2



Elbarrena Industrialdea

Tel.: 943 888 232 Zaldibia

Ordutegia: Astelehenetik larunbatara

10:00-13:00

16:00-20:00

[www.jaiakdenda.com](http://www.jaiakdenda.com)



G i p u z k o a k o m o z o r r o d e n d a r i k h a n d i e n a

AGENDA 21 ▶

# Bost urtetan erdira jeitsi da trafikoko istripuen kopurua

Duela 3 urte jarri zuen martxan Tolosako Udalak Mugikortasun Plana, eta epe honetan izan dituen ondorioak eta hurrengo pausuak zein diren azaldu du

IÑIGO TERRADILLOS

Duela 3 urte jarri zuten martxan Tolosako Mugikortasun Plana, eta epe horretan burutu dituzten ekimenek emaitza onak utzi dituztela azaldu dute udal ordezkariak. Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, «Mugikortasun Planaren helburua herritarren bizi kalitate hobetzea da, eta lortu dugula uste dugu; horren adibide, esaterako, azken 5 urteetan %50ean gutxitu direla Tolosako trafikoko istripuak».

Garraioaren arloan Hiribusarekin hasi ziren lanean, eta ondoren aparkalekuen gaia jorratu zuten; gero etorri ziren bidegorria eta oinezkoentzat

gune berriak sortzeko konpromezua. Hala laburbildu du Tolosako alkateak epe honetan Planaren baitan eginikoa. Irisgarritasunaren baitan, Solana, Laskorain eta Andia izan dira oinezko egin dituztenak. Aurrera begira, berriz, zebra bide altuak jartzeko asmoa du Udalak; San Frantzisko kalean, pilotalekuaren parean bata eta Hirukideren aurrean bestea jarriko dituzte zebra bide desmuntagarriak, eta beste 8 zebra bide ere jarriko dituzte bidegorriaren bigarren fasearekin batera.

Halaber, bidegorriaren bigarren fasearekin berehala hasi-ko dira lanean; 6 zati izango dira denera osatuko dituzte-

nak: Nafarroako Zubia-Berazubi Zubia; Kondeaneko aldapa 20-Igeralde 9; Oriaburu-Berzubi Zubia; Berazubi Zubia-SAM Zubia; Usabal kiroldegia-Iruña etorbidea, eta Laskorain Ikastola-Usabal. Aurten burutuko dutena hori izango da, eta hurrengo urterako Amarotz auzoraino, besteak beste, iritsi nahi dute.

## Aparkalekuak eta Hiribusa

Urte hauetan jorratu duten beste gai garrantzitsuetako bat aparkalekuena izan da. Hiribusak 2006an %30eko igoera izan du erabiltzaile kopuruari dagokionez. Hain zuzen ere, 197.000 herritarrek erabili zu-

ten Hiribusa, 16.637 bidaiari hilabete bakoitzeko. Bestalde, zerbitzuan hainbat aldaketa egin dituzte: 13:00etako eta 16:30eko ibilbide bereziak kendu egingo dituzte erabiltzaile gutxi zituelako, eta 18:30eko atsedena 18:00etara aurreratza erabaki dute. Horretaz gain, lurramendi egoitzara 12:00etan igoko da aurrerantzean 12:30ean igo ordez.

Aparkalekuei dagokionez, «TAOrekin aparkaleku huts gehiago egotea lortu bada ere», ez da nahikoa, eta aparkaleku gehiago egokituko ditu Udalak. Horien artean, Rondillaren luzapenean eta Alhondigan egingo dituztenak, 200 eta 500 plaza, hurrenez hurren.

EKONOMIA ▶

## Langileak aintzat hartzea exijitu dio ELAk Eroskiri

Atzo kontzentrazio burutu zuten Hiper Eroskiren aurrean, egoera salatuzko

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian Tolosako Hiper Eroski aurrean kontzentrazioa burutu zuten ELAk deituta. Eroskik enpresako hitzarmena sinatu duela, baina Espainiako supermerkatuetarako hitzarmen kolektiboa dela sinatu duena, FETICO, UGT eta CCOO sindi katuekin, hain zuzen ere, salatu nahi izan dute. Hori dela eta, esaterako, Tuterako Eroskiko 3 dendatan greban daude irailatik, eta hilabetean behin astebeteko grebak egiten ari dira. Sinatu duen hitzarmenarekin, «langile hauen kondizioak bereziki txartzten dituela» salatzen du ELAk; «beraien lan ordu kopurua handitzen du, atsedenerako eskubidea galduz, baja egoeran aitorutako eskubideak ukatuz, eta soldatak apalagoak dira gainera». ELAren ustez, «Eroskik langileen eskubideak trabatatzat hartzen ditu, murriztu egin nahi ditu eta Euskal Herriko zentroetan negoziatzeko eskubidea ukatu egiten du».

KULTURA ▶

## 'Tolosa Kantuan' DVDa aurkeztuko dute bihar

ERREDAKZIOA

Bihar, 13:30ean Tolosako Orfeoiak *Tolosa Kantuan* DVDaren aurkezpena egingo du jendaurrean. Emanaldia Udal Musika Eskolan izango da eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertara. Tolosaren 750. urteurrenaren baitan antolatutako Tolosa Kantuan kontzertuaren DVDa izango da ikusgai, hain zuzen ere, *Zortzikoa* eta *Tolosako himnoa*-ri dagokion zatia. Orfeoiatik parte hartze-ko deia egiten diete herritarrei, eta himnoa abesteko aukera ere izango dela azaldu dute.

HEZKUNTZA ▶

## Laskorain Baketik zentroan

Asier Imaz ▶ Laskorain Ikastolako LH 6. mailako ikasleak, aste honetan Arantzazuko Baketik bake zentroan izan dira. Bertan eskoletan ematen diren gatazken inguruko esperientzia piloto batean parte hartu dute. Bullyng-a, arrazakeria eta indarkeria moduko gaiak aztertutako antzerki eta tailerren bitartez. 30 ikastetxetako 8 eta 12 urte bitarteko ikasleak aukeratu dituzte lehen esperientzia honetarako, ongi ateraz gero, ikastetxe gehiagotara zabaltzeko asmoa azaldu du Baketik bake zentroak. HITZA



**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ARAMBURU**  
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak.  
Araba etorbidean, lurre auzoan eta Antonio Maria Labayen kalean.  
**Salgai (Tolosa).**  
Pisua Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean).  
**Salgai (Tolosa).** lurre auzoan. Ofizinarako, klaseak emateko, etab, lokal txikia. Oso modu onean.  
**Salgai (Tolosa).** Lokalak Enperadore kalean eta Kale Nagusian.  
**Salgai**, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
**Salgai (Tolosa).**  
Garajeak. Leidor azpian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

OSASUNA ▶

# ISO kalitatearen ziurtagiria jaso du Asuncion klinikak

## Kudeaketarako erabiltzen duen asistentziako informazio sistemagatik eman diote agiria Tolosako erietxeari

ESTI EZEIZA

ISO ziurtagiria kalitatearen adierazgarri da, eta Tolosako Asuncion klinika honen jabe da. Arlo ezberdinetan eskuratu daiteke agiri hau: sukaldaritza, ekoizpenean, fakturazioan eta abar. Baina Tolosako erietxeak, darabilen kudeaketa sistemagatik jaso du ziurtagiria, HYGEHOS izeneko asistentziako informazio sistemagatik, hain zuzen ere. Euskal Herrian nahiz Espainian, Asuncion klinika da alor honetan ISO bat lortu duen bakarra.

Sistema aitzindari honen bitartez, gaixoen mediku-historia, fitxa, plakak, egoera... kontsulta ditzakete ordenagailuan



64.000 kontsulta izaten dituzte urtean Asuncionen. E. EZEIZA

gaixoa artatu behar duten erietxeko langileek. Hori kontrolatzeko zenbait adierazle ipintzen dituzte: pertsona bakoitza behin bakarrik agertzeko, eta orain arteko bere datu guztiak elkarrekin historial bakar batean bildu ahal izateko. Bestetik, gaixoa tratatu behar duen medikuari baliagarri zaion informazioa sistema honen bitartez lortu ahal du. Hemen, bere aurrekariak eta beste medikuek idatzitako datuak kontsulta baititzakete.

2003ko ekainean jarri zuten martxan sistema hau. Informazio kopuru handia mugitzen baita erietxean, eta arduradunen ustetan, «hau kudeatzeko modurik egokiena informatizatzea zen». Modu honetan, medikuak erabili ohi dituen agiri eta paper guztiak informatikoki artxibatu dituzte. Sistema honen zenbait ezaugarri dira:

sarbide errazekoa izatea, erabilgarritasuna, segurtasuna eta osotasuna.

Urtarrilaren 22an jaso zuen ISO ziurtagiria Asuncionek, eta hau urtez urte kontrolatzen dute. Honetarako, agiria emateko garaian hobetu beharreko zenbait puntu agertzen dizkiete erietxekoei, eta datorren urterako aldaketa horiek eginda izan behar dituzte. Beraz, ziurtagiria emateaz gain, honen gaineko kontrol bat ere bada-go.

Beste enpresa, erietxe, lantegi eta abarretan ez bezala, Asuncion klinika ez zen hasi kudeaketa sistema hau erabiltzen ISO ziurtagiria lortzearen. Alderantziz, ikusirik sistema aitzindaria eta egokia zela, hau eskuratzeko proba bat egiteko eskatu zuten.

Agustin Agirre zuzendari medikuak luzatutako datuen arabera, 64.000 kontsulta inguru izaten dituzte urtean. Bestalde, 110 ohe daude klinikan eta hauetatik 5.000 pertsona igerotzen dira urtean. Beste 13-14 mila pertsonak jotzen dute larrialdietara, egunean 40 la-gun gutxi gorabehera.

AGUSTIN AGIRRE ▶ ASUNCION KLINIKAKO ZUZENDARI MEDIKUA



E. EZEIZA

Agustin Agirre da Asuncion Klinikako zuzendari medikua. Urte asko daramatza Tolosako erietxean lanean, eta ongi ezagutzen du bertako kudeaketa sistema nolakoa den.

## «Gaur egun ezin dugu sistema hau gabe lan egin»

**Zein da HYGEHOS sistemak dakarren abantaila handiena?**

Abantaila handiena da, sistema honen bitartez informazio guztia integratua dagoela, hau da, dena batera.

**Asuncioneko medikuek ez ezik, familiako medikuak ere kontsulta al dezake informazio hori?**

Bai, horiek ere posible dute historialean sartzea. Guk bil-tzen dugu informazio guztia, baina familiako medikuei orri horretan sartzen uzten diegu informazioa koltsulta dezaten. Dena den, onena izango litzateke, beraiek ere informazioa sartzea baina erabiltzen dituzte txanda hartzearena. Telefono bidez, edo hona etorrita egin beharrean, [www.clinicadelaasuncion.com](http://www.clinicadelaasuncion.com) webgunean egin ahal izango lukete. Bestetik, aurrera eraman nahi dugun gauzetako bat, gaixoek, historiala kontsultatu ez ezik, hau ere bete ahal izatea da. Bi gauza hauek urte honen amaierarako martxan egotea nahi dugu.

guztiak elkarrekin historiala lantzera. Etxetik aldaketak egin ditzakete, baita hurrengo egunetan kontsultak noiz eta zein gaixoekin dituzten ikusi ere.

**Kudeaketa sistema hori hobetzeko beste lanik egiten ari al zarete egun?**

Bi arlo ari gara lantzen orain. Alde batetik, dugun web orriaren bitartez, medikuak etxetik sartu daitezke historiala lantzera. Etxetik aldaketak egin ditzakete, baita hurrengo egunetan kontsultak noiz eta zein gaixoekin dituzten ikusi ere.

**Medikuek gain, gaixoek ba al dute esku hartzeko modurik sistema honetan?**

Lantzen ari garen gauza bat da, baina oraindik ez dago martxan, gaixoek internet bi-

dez txanda hartzearena. Telefono bidez, edo hona etorrita egin beharrean, [www.clinicadelaasuncion.com](http://www.clinicadelaasuncion.com) webgunean egin ahal izango lukete. Bestetik, aurrera eraman nahi dugun gauzetako bat, gaixoek, historiala kontsultatu ez ezik, hau ere bete ahal izatea da. Bi gauza hauek urte honen amaierarako martxan egotea nahi dugu.

**Harrera ona izan al du sistemak erietxeko langileen artean?**

Oso gustura gaude sistema honekin, gaur egun, ezin dugu hau kendu.

**Zergatik erabaki zenuten ISO ziurtagiria eskatzeko?**

Osakidetzan-eta ISOak lortzen saiatzen dira, gero erakusteko. Hau da, propos talde bat hori prestatzen jarduten da. Baina gure kasuan, enpresa pribatu bat izanda, ez dago horretarako baliabiderik ez eta dirurik ere. Gure helburua ez zen ISO hori lortzea. Baina ikusi genuenean erabiltzen genuen kudeaketa sistema oso ona zela, pentsatu genuen ezer egin gabe, lan bera egiten jarraituz lortu ahaliko genuela ziurtagiria. Horregatik auditorio bat eskatu genuen eta agiri-ria lortu. Azpimarratzekoa da, ez genuela esfortzu berezirik egin, bakoitzak bere lanean jarraitu zuen. ▶

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

urteurrena ▶

### Zorion Atxukarro Matxinea

(1. go urteurrena)

Haize argi baten boladan zoaz mugaz bestalde izarren gora. Bilatzen zaitut eta ez zaude bizitzen zaitut muinaren barne.

Muxu asko zure etxekoek



BERASTEGI, 2007ko otsailaren 10a

hilberria ▶

### Santiago Garcia Martinez

JAUNA

HITZAko lankideek bat egiten dute familiaren saminarekin

TOLOSAN, 2007ko otsailaren 10a

## VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



## Magia eta istorioak ikastolan

**Erredakzioa** ▶ Asteazkenean, Esther de Eusebio mago eta idazle madrildarraren bisita izan zuten Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolan. Hainbat istorio kontatzeaz gain, magia ikuskizunak eskaini zizkien ikasle eta irakasleei. Besteak beste, arbel magikoa eta kapela erabiliz, gauzak agertzea, desagertzea, aldatzea... lortu zuten. Ikusle zeudenak ere partaide egin zituen karta joko zein bere istorietan lagundu diezaieten. HITZA

## IRURA ▶ MUSIKA



## Aniztasuna entzungai Iruran

**A. Imaz** ▶ Azken larunbatean eskualdeko musikarien kontzertua izan zen Irurako Trinketea. Joselito EL Albahicin, Paul Martin eta Borja Ariztimuño bikotea eta bertako seme den DJ Bullen emanaldiak osatu zuten lagun arteko festa bezala antolatuta zuten gaua. Kontzertua hamaikak inguruan hasi eta goizaldeko bostak arte luzatu zen. Musika anitza entzuteko aukera izan zuten bertara gerturatu zirenek, euskal kanta eta runba melodiak, besteak beste. HITZA

## AMEZKETA ▶

Aimar Irigoien  
saiozik ez da  
izango gaur

Aimar Irigoien harri-jasotzailea ez da Amezketako Albitzuri Aundi Harri-jasotze Txapelketan izango gaur, gastroenteritisak jota baitago. Gazteak esan bezala, «medikuak gaurko proban parte ez hartzea gomendatu dit, hamar minututan deshidratatzeko arriskuak izan ditzakedalako».

## TOLOSA ▶

Ehunka preso  
ohi, nahiz senide  
bilduko dira gaur

Gaur, Tolosako Beotibar frontoian ehunka preso ohi, senide, eskualdez eskualde barrauan aritu diren lagun eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduko elkarte Anai Artea, TAT, Eskubideak, Etxerat, Gurasoak, Askatasuna eta Behatokiko ordezkariak bilduko dira. Orain arte, herriz herri eragile eta norbanako ezberdinek hartutako konpromisoak aztertu eta aurrera begirako urratsak adostu eta erabakiko dituzte. 12:00etan prentsaurrekoa eskainiko dute, eta, hitza, barrauan aritu den Regina Maiztegi eta Juan Mari Olanok hartuko dute.

## LIZARTZA ▶

Manifestazioa  
bihar, 19:00etan  
De Juanaren alde

19:00etan Lizartzako udal-txearen aurrean, 96 egun gose greban daramatzan Iñaki De Juanaren aldeko manifestazioa egingo dute. Hil ala biziko egoeran dagoen De Juana preso prebentiboaren egoera larria salatzen eta askatasuna eskatzeko antolatuta du ekimen hau Lizartzako herriak.

## KOMUNIKAZIOA ▶

'Bost Txakur'  
programan  
parte-hartzea

ETBko *Bost Txakur* programak famili euskaldunak bilduten ditu erreportaiak egiteko. Izen-ematea edo edozein zalantza argitzeko, bost\_txakur@hotmail.com helbidera idatzi daiteke.

## VILLABONA ▶ KULTURA

'1, 2, 3...  
Inaxito' bihar,  
Gurea aretoan

Trikuharri taldeak bertso antzezlanaren eskainiko du, 17:00etan hasita

## ASIER IMAZ

Bihar Villabonako Gurea aretoan gaztetxoek zuzenduriko bertso antzerkia ikusteko aukera izango da, Trikuharri taldearen *1, 2, 3... Inaxito* antzezlanaren hain zuzen ere. Emanaldia 17:00etan hasiko da eta 4 euro ordaindu beharko dira.

Antzezleak, Beatriz Egizabal, Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Gorka Tolosa izango dira, eta antzezlan berri hau 5-12 urte-

ko gaztetxoek zuzendua dago, nahiz eta helduek ere zer ikusi eta ikasia izango duten.

Trikuharri taldeak *Inaxito-aren Ametsak* bertso antzerkia sortu zuen 2003ko udan. Bi urtetan ametsetan ibili ostean, ezkutaketa dabil orain Inaxito, jolasean: zenbakiekin ezkutaketa. *1, 2, 3... Inaxito!* bertso antzerki berria herriz herri dabil zenbakien bila. Bertso antzerki bizi eta atsegin honek haurren irudimena landu nahi



Bihar eskainiko dute antzezlanaren Trikuharri taldekoek. HITZA

## EMANALDIA ▶

**Izenburua.** *1, 2, 3 Inaxito.*  
**Taldea.** Trikuharri.  
**Lekua.** Gurea aretoa.  
**Eguna.** Bihar.  
**Ordua.** 17:00etan.  
**Prezioa.** 4 euro.

TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu gure webguneak *Zeuk idatzi* izena duen atalean. ▶

du, sormena. Buruari eraginez zenbakiak bilatu eta aurkitu behar ditugu denon artean. 0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 gorde egin dira! Ondo gorde, gainera! Zein zenbaki da luze bezain argala eta sudur luze-luzea duena? Eta hanka-luze, buruhandia?

Istorioren xelebre break izango dira, beraz, ikusgai Gurea aretoan bihar: bertso, musika, kantu eta oso pertsonaia berezidun kontaketa.

Emanaldiaren amaieran leburua haurren dena posible dela azaltzea da, beti ere irudimena erabiliz; zenbakiak aurkitzea ere bai! Irudimena bidez bizi politagoa delako!

## iragarki laburrak ▶

## ALOKAIRUAN

**Tolosa.** Konpartitzeko pisu bila nabil. 630 46 31 73.

**Lekunberri.** 60 m<sup>2</sup>ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukaldaria eta 2 logela. 679 20 14 60.

## SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995. urtekoa. 153.000 kilometro iburuarekin. 18ko lantegi eta tetua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43 zenbakira.

AHT ▶

# «Gustura geratu gara jardunaldiekin eta parte-hartzearekin»

Izandako harrerarekin aurrerantzean ere bilera informatibo gehiago egitea erabaki dute; hurrengoa, martxoaren 5ean



Aurreko larunbatean egindako mendi marxan eraitziko dituzten baserriak ikusi zituzten. HITZA

## ERREDAKZIOA

Lehengo astean zehar Tolosaldeko AHT Geldituz Elkarlanak AHTren inguruko jardunaldiak antolatu zituen. Hauen balantze «ona» azpimarratu dute taldekideek: «Elkarlaneko kideok, alde batetik, asko eskertu behar dugu jendearen parte-hartzea eta inplikazioa». Oro har, «oso gustura geratu gara jardunaldiekin eta parte-hartzearekin: hizlariarekin, eta bai mahai-ingurueta etorri den jendearekin ere».

Jardunaldiak urtarilaren 30ean hasi ziren, eta bertan Iñaki Barcena EHUko Parte Hartuz elkarteko kideak, Danel Etxeberria Itsasondoko zinegotziak eta Aramaion herri kontsulta bultzatzen ari den taldeko kide batek parte hartu zuten. Barcena azaldu zuen zer motatako parte-hartzeak dauden, demokrazia dela gaur egun bultzatzen dagoen parte-hartze mota, baina beste parte-hartze mota bat bultzatu behar dela, herritarrek izateko hitza edozein erabaki handitan.

Danel Etxeberriak Itsasondoko kontsultan emandako pausua kontaktatu zituen, eta Aramaioko kideak herritarrek bultzatutako kontsulta zertan den jakinarazi zuen, baita kon-



Jendeak kezka eta galdera asko planteatu ditu jardunaldietan. I. T.

tsulta egiteko zer pauso ematen ari ziren ere. «Jende ugari azaldu zen, eta gustura parte hartu zuen jendeak beren esperientziak kontatuz, egoera salatuz...».

## Ustezko lapurreta

Asteazkenan harrobiei buruzko mahai-ingurua egon zen: eskualdean zer harrobi eraikitzeko asmoa dagoen, eta harrobi horiek eta orohar trenaren proiektu osoak zenbateko kalteak ekar ditzaketen azaldu zuten. 30 bat lagunek parte hartu zuten.

Egun honetan, Tolosako Kultur Etxean alokatutako gelatik «liburu oso baliotsua» desagertu zen. «Lapurtu, edo era-

man zuenak bazekien zeren bila joan zen, ez baitzuen beste ezer eraman».

Ostegunean espropiazioei buruzko mahai-ingurua egon zen. Eneko Karrera Gipuzkoako EHNEko lehendakaria, Onintza Ostolaza EHNEko abokatua, Elkarlaneko kide bat eta Agurtzane Diez kaltetua izan ziren bertan. Espropiazioak nondik nora doazen, horien aurka zer egin daitekeen eta nekazariak zenbateko kalteak izango dituzten jorratu zuten, besteak beste. 45 lagun inguru bildu ziren. Jendeak bere kezka eta zalantzak argitu ahal izan zituen mahai-inguruan.

Ostiralean AHTren kontrako mugimenduen eguna izan zen. Alde batetik, Val di Susa Italia-

ko bailaran aurrera daramaten borrokari buruzko bideoa proiektatu zuten, eta, bestetik, Mikel Alvarez AHTren kontrako Asanbladako kidearen hitzaldia izan zuten. Bideoko zenbait zati osatu zituen, eta, horrez gain, «borroka Euskal Herrian zertan den» azaldu zuten. 25 lagun izan ziren.

Larunbatean, berriz, bi ekimen zeuden antolatuta. Alde batetik, mendi marxa. 30 lagun joan ziren honetara. Mendi marxtan, «proiektuaren arabera botatzekotan diren bi etxe bisitatu genituen». Bidean «kaltetuekin hitz egiteko aukera egon zen», eta jendeak aurrez aurre ikusi ahal izan zuen jende horren egoera.

Ondoren, manifestazioa egon zen. 300 bat lagunek parte hartu zuten, eta Triangulotik hasi eta udaletxera arteko bidea egin zuten manifestazioak.

Beraz, hori guztia kontuan hartuta, «oso balorazio positiboa egin dugu Elkarlanetik».

## Aurrerantzean ere bilerak

Jardunaldietan ikusitakoaren arabera, jendeak interesa dauka gai honen gainean. Ondorioz, «jendeari dei egiten diogu trenaren aurkako ekimen eta bilerekin parte hartzen jarrai dezan», eta, hori dela eta, martxoaren 5ean, astelehenean, 20:00etan «Tolosako Kultur Etxean egingo den eskualdeko bilerara gonbidatzen dugu. Denon indarra beharrezkoa dugu. AHTrik ez! Antolatu eta borrokatu!».

## Alegian Parte Hartze taldea

AHTren inguruan informazio eta galdeketa prozesu bat ireki da Alegian. Herritarrek eman zioten hasiera sinadura bilketa batekin. Hauek Udalean sartu eta ekimenak martxan jartzeko eskaera egin zuten. Ondoren, Parte Hartze Batzordea hasi zen lanean eta eman beharreko pausak zehazten hasi.

Parte Hartze Batzordeak orain arteko pausuetan taldea osatzeari eta ideiak biltzeari eman dio garrantzia. Horretarako jarri ditu hainbat buzoi herrian eta asteartero bilerak egingo dituzte. ◀

BEDAIO ▶



Bedaioko triptikoa. HITZA

## Gaur Artubi elkartean barrikotea izango da

Afarira joateko ez da txartelik behar, han azaltzea besterik ez da egin behar

## N. URBIZU

Bedaioko Artubi elkarteak, beste behin, urtean zehar egiten diren ekitaldien artean otsalekoa antolatu dute. Kasu honetan, barrikotea izango da, eta gaur egingo dute Artubi elkartean.

21:00etako afaria irekia da, «normalean Bedaioko jendea biltzen da, baina afarira edozein etor daiteke, noski». Bertan sagardotegiko menua izango da, hau da: bakailao tortilla, bakailao saltxan, txuleta parrillan eginda eta intxaurrek, irasagarra eta gazta. «Sagardoa xiritikan edango dugu».

Ez dago izena emateko beharrik, ezta txartel ere beharrik ere: «Zuzenean elkartean azaldu eta datorrenari afaria emango diogun, 20 bat euroren truke, gutxi, gorabehera», Artubi elkarteko kide batek argitu zuen moduan.

## Triptiko osatua

Triptiko osatu bat egin dute Artubi elkarteok: bertan, hilabete bakoitzean dagoen ekitaldiari buruzko aipamena egiten da, eta Bedaioari buruzko kokapenaren gaineko informazioa.

**PO** **GINETAKOAK**

Gogorarazten dizuegu **Merkealdian** gaudela

**Para solteak 25€** (azken egunak)

Nafarroa etorbidea, 7  
Tel.: 943 65 40 62  
20400 **TOLOSA**

## HEZKUNTZA ▶

## Ludoteka eta udaleku irekietarako begiraleak

## ERREDAKZIOA

Belauntza, Gaztelu, Leaburu-Txarama eta Orexako udalek deialdia egin nahi die ludoteka eta udaleku irekietan begirale gisa lanean aritu nahi dutenei. Interesatuak bi baldintza bete beharko dituzte begirale gisa lanean aritzeko, 18 urte izatea eta euskara menperatzea.

Begirale gisa lan egin nahi dutenek udaletxera jo beharko dute informazioa jaso eta istantzia hartzera otsailaren 12tik martxoaren 2a bitarte.

Hona hemen izena emateko ordutegiak: Belauntzan, 09:30etik 15:00etara. Orexan astearte eta ostegun goizean. Gaztelun, astelehenera eta asteartetan 08:00etatik 13:00etara eta ostegunean 10:30etik 14:00etara. Leaburun, goizean zehar.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423  
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134  
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329  
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228  
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111  
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900  
▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -  
67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## KALDEREROAK ▶

## Hungariatik Tolosaldera

Atzo iritsi ziren Hungariako kaldereroak gure eskualdera, eltzeak eta mailuak eskuan eta kalejiran barna koplak zaharrak kantatuz inauterien iragarle gisa

## MADDI SOROA

**X**IX. mendean eta baliteke lehenago ere ohikoa zen Europako erdialdetik eta batez ere Hungariatik, Europan zehar harantz eta honantz ibiltzen ziren familia edo garai bateko tribuak Euskal Herrira etortzea. Gertakizun garrantzitsua izaten zen kaldereroen etorrera, besteak beste, haien janzkerak, kantuak, dantzak eta orokorrean haien ohiturak, oso bereziak eta ikusgarriak baitziren.

Behin Euskal Herrira iritsita, toki hartzen zuten gainontzeko herrialdeetan bezala eta haien ohiko lanei ekiten zieten; eltze, pertz edota metalezko beste hainbat elementu konpontzen baitzituzten.

Hortik dator urterik urte gure eskualdean kaldereroen eguna ospatzeko ohitura. Inauterien iragarle dira modu batean, inauteriak ospatzen hasi baino aste bete lehenago ospatzen baita kaldereroen etorrera. Garai bateko Hungariarrak bezala, kolore biziko jantziak

soinean eta zapia buruan jantzi, urre koloreko pitxiak zintzilikatu eta eskuetan ontziak eta mailuak hartuz kaldera iritetez dira herritarrek kalejiran iritetez eta ohitura zaharrari jarraituz kaldereroen etorrera ospatzeko.

Kalejiran dantzatzeaz gain, ezagunak diren Raimundo Sarriegiren *Hungariako Konpartsa I, II eta III Kalejira* edota *Begi urdin bat* kantuak abesten dira kaleetan zehar. Ez da inoiz falta, ordea, eltze eta mailu hotsoak.

Hala egin zuten atzo Anoeta, Irura, Ibarra eta Zizurkil, Hungariako kaldereroak iritsi baitziren eskualdera. Zizurkilera heldu ziren lehendabizi. Pedro Mari Otaño eskolatik irten ziren eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak eta Joxe Arregi plazara iristearrekin bat, askaria egiteko aukera izan zuten. Iruratik, berriz, 18:00etan irten ziren eta kalejira ederrean Anoetaraino joan ziren kantu eta algaraka. Azkenik Ibarra, Loatzo musika eskolakoak plazan elkartu ziren.



**Zizurkil.** Pedro Mari Otaño eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak eskolatik Joxe Arregi plazaraino joan ziren kalejiran eta kaldereroetako ohiko kantak joz eta abestuz. Ondoren, askaria egin zuten. M. SOROA



**Anoeta-Irura.** Anoeta eta Irurako ikastetxeko ikasle eta irakasleek urtero elkarrekin kalejiran iritetezko ohitura dute Loatzo musika eskolakoekin batera. Irudian, kalejiraren une bat Anoetan. M. SOROA



**Ibarra.** Loatzo musika eskolakoekin batera herriko haur eta gazteak astean zehar entseguetan aritu ondoren atzo, guztiak plazan elkartu eta musikaren konpasean zartagina joz kaldereroetako abestiak jotzen aritu ziren Ibarra plazaatik abiatuta. MADDI SOROA

LEITZA ▶ PILOTA

# Aurrera Pilota Eskola sasoi betean

Asteburu honetan norgehiagoka ugari jokatu dituzte herriko pilotariek, bai Leitza baita kanpoan ere

NAIARA GARZIA

Asteburu honetan Binakako Txapelketaz gain, euskal pilotaren barruan izanen da beste ekitaldirik, gaur Leitza Nafar Jokoen beste jardunaldi bat eginean baitute. Goizeko 09:30ean hasiko dira pilota partidak Amazabal pilotalekuan eta 6 izango dira jokatu-ko direnak.

Atarrabia, Uharte-Arakil, Burlata eta beste hainbat herriko pilotari gazteak gaur Leitza Nafar Jokoen beste jardunaldi bat eginean baitute. Goizeko 09:30ean hasiko dira pilota partidak Amazabal pilotalekuan eta 6 izango dira jokatu-ko direnak.

22 urtetik beherakoak izango dira goiztiarrenak, Aurrera Pilota Eskolako Mikel Iriarte eta Aimar Lansalot izango baitira 09:30ean jokatzeko lehenengoak, Atarrabiako Beti-Onak klubeko pilotarien aurka. Ondoren hasi berrien txanda izanen da, eta kategorioa honetan 4 partida jokatu dituzte, hori bai, maila ezberdinetan, hau da, hasi berrien 2. mailako partida izango da lehenengoa, ondoren lehenengo mailako beste bi partida izanen dira eta azkenik, hasi berrien 3. mailako jokatu dute. Goiz osoan zehar jokatu diren norgehiagoka guztietatik hau izanen da

bere osotasunean leitzarren artean jokatu den bakarra, Ibai Azurmendi eta Julen Goikoetxea, Iker Sagastibelza eta Josu Zabaletaren aurka lehiatuko baitira.

Amazabal pilotalekua, ordea, gaur ez da Nafar Jokoen egoitza hutsa izanen, esku-pilota ez baita gaur goizean zehar Amazabal pilotalekuan ikusiko dugun modalitate bakarra. Saioa Iraola eta Iera Agirre Kuku taldeko pala-jokalarien aurka ariko dira Euskal Herriko Emakumezko Nagusien Gomazko-Pala Ligaren barruan.

## Herritik kanpo

Honetaz gain, gaurko egunak eta Nafar Jokoen beste egoitzik ere izanen dute, Uharte-Arakilen eta Lodosan, hain zuzen ere.

Uharte-Arakilen Mikel Onsallo eta Xabier Eraso Aralar Mendi elkartearen aurka lehiatuko dira, haur-kategorian, bigarren mailan. Lodosan, berriz, Joxerra Aldaregia eta Xabier Jaunarena San Francisco Javier A taldeko pilotarien aurka ariko dira, hauek ere haur-kategorian, baina lehenengo mailan.

Bihar berriz, Nafar Jokoenetik harunta, Aurrera Pilota Eskolako kide bat Arabako X. Irekian izanen da, Ogetan (Gasteizen), kadete mailan: Jaunarena. Bengoa pilotariarekin jokatu du.



Nafar Jokoen lehenengo jardunaldia. N. GARZIA

## AURRERAKO PILOTARIAK ▶ ASTEBURUKO PARTIDAK

### NAFAR JOKOAK LEITZA

**22-TIK BEHERAKOAK**  
**Urdinez.** Mikel Iriarte eta Aimar Lansalot.  
**Gorritz.** Beti Onak.

**HASIBERRIAK, 2. MAILA**  
**Urdinez.** Markel Barriola eta Asier Gil.  
**Gorritz.** Aralar Mendi B.

**HASIBERRIAK, 1. MAILA**  
**Urdinez.** Ibai Gil eta Mikel Sagastibelza Lasarte.  
**Gorritz.** Oberena A.  
▶ Hasiberrien 1. mailan beste partida bat jokatu du.

**Urdinez.** Anartz Olano eta Mikel Sagastibelza Egues.  
**Gorritz.** Zugarralde A.

**HASIBERRIAK, 3. MAILA**  
**Urdinez.** Ibai Azurmendi eta Julen Goikoetxea.  
**Gorritz.** Iker Sagastibelza eta Josu Zabaleta.

**EUSKAL HERRIKO LIGA Emakumezko Nagusien Gomazko-Pala Liga.** Gaur beste modalitate batean jokatu den partida bakarra izango da. Saioa Iraola eta Iera Agirre, Kuku taldeko kideen aurka ariko dira.

### HERRITIK KANPO

**NAFAR JOKOAK Uharte-Arakil.** Mikel Onsallo eta Xabier Eraso Aralar Mendikoen aurka ariko dira (haur-kategoria, 2. maila).  
**Lodosa.** Joxerra Aldaregia eta Xabier Jaunarena San Francisco Javier A taldeko pilotarien aurka ariko dira (haur-kategoria, 1. maila).

**ARABAKO X. IREKIA Otsailak 11.** Kadete mailan Jaunarena leitzarrak jokatu du, Bengoaren, Etxeberria eta Erdoziaren aurka, Gasteizen.

hitza

# Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetik  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

kanikak  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Avalon  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR  
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR  
ONINAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Erraldoi eta buruhandiak (10:30), haurren txantxo lehiaketa zentro sozio-kulturalean (15:00), haur jaialdia eta txantxo lehiaketako sari banaketa Leidorren (16:30), Kalderero konpartsa Triangulotik (19:30) eta Incansables xaranga (23:30).  
**Tolosa.** Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.  
**Tolosa.** Zainketa klinikoak eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, ebeko laguntza, geriatría, inmigratio teknikari laguntzailea. 200 ordu teoriko eta 100 praktiko. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.  
**Anoeta.** Alkartasuna jubilatuen biltokiko taberna-jatebidearen ardura hartu nahi duenak, udal txanonean eska dezake informazioa.  
**Amezketak.** Frontoian Albitzuri Handi harri-jasotze Txapelketa izango da. Bertan 10 harri-jasotzaile izango dira, eta ikuskizunak 10 euro balioko ditu. 166 kiloko harri irregularrak jaso beharko dute 10 minutuz. Altxaera kopurua hartuko da kontuan.

**Bedaion.** Urtero bezala barrikotea prestatuko dute. Artubi elkartean izango da 21:00etan, eta gonbitea luzatu dute. Bertan bakailao lutzatu dute. Bertan bakailao tortilla, bakailaoa saltxan, txuleta eta postrea izango dira, 20 euro.  
**Lizartza.** 00:00etatik aurrera, Laket musika taldearen kontzertua izango da Lizartzako Gaztebidean.  
**Lizartza.** Bihar, Iñaki de Juanaren aldeko manifestazioa, Lizartzako herriko deituta, 19:00etan. *Iñaki de Juana askatu* lemapean.  
**Zizurkil.** Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezala errolda agiria, jaiotza agiri literala (bertan egin daiteke), NANen fotokopia eta familia liburuarekin.

**ERAKUSKETAK**  
**Tolosa.** Elpuntea (lehen

# Mintzatzuz ikasi

**TOLOSALDEA ▶ Ingelesa hobetze aldera, bost laguneko talde bat ari da mintza praktika egiten bi astez behin**



Villabonako, Andoaingo edo Larraulgo tabernetan biltzen da taldea ingelesa praktikatzeko. HITZA

**ERREDAKZIOA**  
**I**noiz ez da omen da berandu proiektu berriak hasteko. Hizkuntzaz ikastea eta praktikatzeko izan daiteke horietako bat. Hori da, hain zuzen ere, lagun talde batek egiten duena.  
 Hain zuzen ere, bi astez behin Villabonako, Andoaingo, edo Larraulgo tabernetan batean biltzen dira bost lagunak tertuliatxo batean parte hartzeko, non guztia ingelesez azaltzen duten, euren ahoko

maila hobetze aldera. Kafetxo bat edota zerbeza bat hartuz arratsalde atsegina igarotzen dute ikasten duten artean. «Lortu ere lortzen dugu», diote taldeko partaideek gustura. «Hasieran guztiok lotsa handia pasa genuen baina orain hola edo hala moldatzen gara, eta hanka sartzeak elkarri zuzentzen dizkiogu», diote pozik taldekideek.  
 Taldea handitzeko asmoa ere azaldu du koadrillak. Beraz, «arte atsegina eta emankor bat» pasatzeko gogoia baldin

duenak, haiekin «elkartu» besterik ez du, Villabonako, Andoaingo, edo Larraulgo edozein tabernetan, egunean eguneko.  
 Ingeleseko mintza praktika hobetzeko asmorik duenak taldearen berri izan dezake, Aiztondo mankomunitateko Itsasoren eskutik. Izan ere, hark emango dizu telefono honetan: 943-693930. Taldeak deialdi irekia egiten du adin eta era guztietako jendearekin bertan izena emateko eta (une atsegina igarotzeko, ingelesez).

Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian, jaiegunetan eta astelehenetan izan ezik.  
**Tolosa.** *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian (egunero, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik), otsailaren 24ra arte.  
**Alegia.** Isabel Mujika tolosarraren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai. Asteburu honetan izango da koadroak ikusteko azken aukera. (Astelehenetan taberna ibitza dago).

**ZINEMA**  
**Tolosa.** Gaur, 19:30etik aurrera eta 22:30etik aurrera *Maria Antonieta* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan, 4,5 euroren truke. Bihar, berri, film berbera 19:30ean eta 20:30etik aurrera izango da eta 17:00etan haurrei zuzendutako emanaldian, *Gure saguboko hori* izeneko filma izango da ikusgai. Sarrerak 4,5 euroko balioa du.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**  
**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren 95. 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

**IRRATIA**  
**Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Hitza* hegana.  
**Goiko irratia (107.0 FM)**  
 12:00. *korrera.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Agustín eta Arantxa (Urkizu). Zorionak bihotz-bihotzez familia guztiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea  
 Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...